

Erref.: FMR/Legelari aholkularia

DAVID LATXAGA UGARTEMENDIAK, BIZKAIKO GIZARTE URGAZPENERAKO FORU ERAKUNDEAREN GOBERNU BATZORDEKO IDAZKARIAK

HAU ZIURTATZEN DU:

2025eko uztailaren 21eko bilera arruntean (3/25 akta), Bizkaiko Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundearen Gobernu Batzordeak, besteak beste, honako erabaki hau onetsi zuen:

6. Gaia: 2022ko GUFeko enplegu publikoaren eskaintza zati batean aldatzea, Biltegiko goi mailako Teknikari, Ekonomista eta Arduradun kategorietarako.

”Bakarra.- GUFEn 2022ko Lan Eskaintza Publikoaren zati bat aldatzea, Gobernu Batzordearen 2022ko abenduaren 19ko Erabakiaren bidez onartu zena eta urte bereko abenduaren 30eko 248 zenbakiko BAO n behar bezala argitaratu zena, Goi Mailako Teknikari, Ekonomista eta Biltegiko Arduradun kategoriekin guztira hiru (3) plaza betetzeko; hori guztia aurreko txostenaren babesean eta eranskinean adierazten den motibazio eta irismenarekin, halako moldez non lanpostu horietarako deialdia orain derrigorrezkoa ez den hizkuntza-eskakizunarekin egingo den. Bete bedi.“

Eta hala jasota gera dadin, erabakitakoa betetzeko, eta bileraren akta onartzeak aldaketak eragin ditzakeela kontuan hartuta, ziurtagiri hau egin dut.

Sin./Fdo.: DAVID LATXAGA UGARTEMENDIA - 2025-07-30
GUF-REN GOBERNU BATZORDEKO IDAZKARIA
SECRETARIO DE LA JUNTA DE GOBIERNO DEL IFAS

